


K Komikia

Nando



Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosako Alde Zaharrean atiko argitsua salgai. 50 m², egoera onean. 153 260 euro (25.500.000 pztz). Interesatuak deitu 943-43 00 20 telefonora. Zuzeneko salmenta.

■ **Furgoneta.** Volkswagen Multivan furgoneta salgai. Westfalia sabaiairekin. Berogailu estatikoa. Bizikletak eramatekoarekin. Prezio interesgarria. 665-73 42 27.

AURKITUAKOIA

■ **Ibarran.** Perikitoa edo loritoa. Gorputza berdea eta urdina eta burualarjanja. 609-47 30 81.

LANA

■ **Mutila.** Mutil euskalduna behar da lanerako. 25-30 urte bitartekoa. Deitu 13:00etatik 15:00etara. 649-51 09 41.

ALOKAIRUA

■ **Apartamentua.** Tolosako Alde Zaharrean apartamentua alokagai: etxe berria, igogailuarekin, berogailuarekin eta guztiz hornitua. 665-70 93 80.

Gutunak

Greziar herriaren borroka eredugarriaren aurrean

Pasa den asteazkenean Greziako herri eta langile sektoreek kaleak hartu zituzten beste behin ere Greziako gobernuak Europar Batasunak eta Nazioarteko Diru Funttsak (FMI) agindutakoari jarraiki ezarri nahi dituen neurrien aurka.

Greziar langileek argi eta garbi

erakutsi zuten asteazkeneko greba orokorrarekin -eta erakusten ari dira azkenaldian euren borroka etengabearekin- kapitalaren kontrako borroka bizirik dirauela.

Greziako langileak (Euskal Herrikoak eta beste herrietakoak bezala) krisia klase dominatzaileen alde konpontzearen aurka daude, krisia ez dute langileek sortu, klase dominatzaileek baizik, eta beraz, krisia ez dugu langile eta herri sek-

torek ordaindu behar. Alabaina Nazioarteko Diru Funttsak Grezian ezarri nahi dituen neurriak klase dominatzailearen xantaia dira krisia bere klase interesen alde konpontzeko, krisiaren errudunak krisiaren bidez etekinak ateratzen segitzeko.

Betiko moduan, kapitala dirua mailegatzeko prest dago baldin eta eskubide sozialak murrizten badira, pribatizazioak ematen badira, soldatak jaisten badira eta

abarluze bat. Azken finean, horrelako neurriekin, lehenago kapitalismoaren periferiako hainbat herri egin bezala, Argentina kasu, greziar sektore publikoa deuseztatu nahi dute eta greziar herria ekonomikoki kolonizatu. Hau da, Europako eta Ameriketako Estatu Batuetako botere handiak diren Nazioarteko Diru Funtseko zuzendarien kontrolpean utzi nahi dute.

Tolosaldeko Askapena.

KAZETARIAK (Erref.: 2010-LPKAZ) Berria egunkariak kazetariak behar ditu ordezkapenatarako lan poltsa osatzeko.


Eskatzen

- Kazetaritza ikasketak izatea
- Kazetari lanetan esperientzia izatea
- EGA edo baliokidea den euskara maila izatea

Kontuan hartuko da:

- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Frantsesez eta ingelesez jakitea
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea

Bidalí curriculuma gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehaztuta, maiatzaren 10a baino lehen.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Gozatzeko ahalmena

» Iritzia

Iratxe Etxebeste.

Euskal Idazleen Elkarte zuzendaria.

Joxan Ormazabal Berasategiri buruz galdetzen baduzu herriari, literaturaren munduan, eskoletan, esango dizute pertsona ona zela, eta baikorra. «Laguntzeko beti prest» zegoela diote

bere lankide izandakoei, eta kostatu egiten zitzaiola enkargu bati ezetz esan behar izatea. Ormazabal oso autoexigentea zen, ardurtsua. Estu hartzen zuen bere burua. Lanerako seriotasun hori edertasun bihurtzen zen gero paperean. Langile porrokatu honek hainbat belaunaldiren hezkuntza sentimentalaren parte izan diren lanak idatzi, itzuli, argitaratu zein

koordinatu zituen, beti maitasunez: *Zipristin metodoa*, *Teo-ren itzulpenak*, *Ketxusen zooa*, *Norena da basoa?* eta abar. *Astoa ikusi nuen/betaurrekoekin/buruan txapela eta/gabardinarekin* kantatzen genuenean, zegamarraren izaeraren zati bat agertzen zitzaigun begi-bistan: alaitasunaren alde egin ohi zuen idazlanetan.

Gizaki guztion kezak, doluak eta pozak deskribatzen maisu izan zen, eta haurren mundua ondo baino hobeto ezagutzen

zuen. Bost urte egin zituen Zarauzko ikastolan bigarren mailan irakasle, eta gero Beasaingoan, Elkar argitaletxean hasi aurretik. Seguru klaseko umeak tratatzen zituen modu berean tratatzen zuela testu oro, euskaldunok izan genezen merezi dugun hurbilpena haurtzaroko lehen letra gozotara.

Betiko utzi dizkigu hainbat pasadizo eta liburu umoretsu, Pernando Amezketarren eta Lazkao Txikiren ingurukoak, esate

baterako. Eta beste askotan gai sakonak landu ditu, arintasunez eta elegantziaz. Euskal Idazleen Elkartetik egin diot jarraipena nik azken urteetan. Idazleak ikastetxeetan programako saio askotan hartu izan du parte urtero Joxanek, eta esan dezaket bere saioak oso estimatuak zirela.

Gozatu egiten zuten entzuleek berarekin, eta gozatzeko ahalmen handi hori ez da desagertuko, bere liburu bat edozein eskolako liburategian den artean.

Egun handirarte Joxan

» Iritzia

Antton Izagirre

Gaur ez duk ohiko abarrotsik izan hire semearen ikasge-lan. Mutu eta ixil eman diagu eguna. Korapilo lodi batek estutu ziguk zintzurra eta ezin izan diagu hitzik aurkitu geure samina baretzeko. Aldian aldian ekaitz giroko euri tanten kolpetxoek kristaletan, eten zigutek geure gogoeta tristea.

Zergatik? galdetzen genian baina ez diagu erantzunik aurki-

tu. Begiak heze, malkotan, sentikor, minbera nabari dizkiagu. Behatz puntaz lehortu dizkiagu. Burumakur, elkarririk begietara so egin ezinik joan zaizkiguk orduak. Gaur apaletik berriro hartu diat heuk oparituriko olerki liburua. Berriro irakurri dizkiat emeki-emeki, erraiak urratzen dizki-dan galderari erantzunen bat poemetan aurkitu nahian. Ez diagu han ere erantzunik jaso. Gero banaan bana ikasleei irakurri zizkiet. Ohartu gaituk nolako xamurtasunez irudikatzen duan bizitza, maitasuna, mundua, tristura eta

heriotza bera ere. Liburuaren amaieran agurtu gaituk:

Isildu da kilkerra
eta txori kantaria,
eten zaio ehuleari
haria
eguzkiari argia.

Goizean etorri
eta orain banao
bihar ere jaioko da
egun berri-berria
eta sortuko du
zuretaz
nire poesia.

Gaur hire hilxutxaren aurrean

hire lagun eta gertukoenei galdera bera egin zieat zergatik?

«Joxan, onegia huan mundu honetarako» erantzun zigutek. Hi ezagutu eta hire adiskidetasunaz gozatzeko aukera izan dugunoi horrek lasaitu ziguk barrera, nahiz eta guk hire adiskidetasunaz gozatzen jarraitu nahi genian, oraindik luzaro.

Eta orain, hi gabe, nork kontatuko zizkiek gure ikasleei azken ipuin goxoak eta nork irakurriko hire poema bigunak. Umezurtz utzi dituk Kittano, Kotti, Margolin, Patxibusa, Kaskarintxo, Pernando Amezketarra, Antonio Bolas... eta hire ipuin, kontu eta olerkietako pertsonaiak. Ume-

zurtz utzi gaituk gu geu ere. Nor hasiko dek orain bertsotan eta kantuan Legorreta edota Orea-kobazkaritan. Nork ordezkatuiko dik gure artean hire irri-algara zaratatsua, nork jarriko dik bazkal osteko solasean hire kontrapuntu filosofikoa?

Hago lasai Joxan eta har ezak atsedean. Hitz ematen diagu saiatuko gara hie ere in eta geure artean utzi dituan kimu gazteak zaintzen eta ureztatzen, hire eredu biazirik irauarazten. Hitz ematen diagu, hik hainbeste mailte huan Euskara eta Euskal Herria eraikitzen jarraituko dugula.

Agur Joxan, lagun eta poeta, 'egun handirarte'.

Zein izan izen?

» Iritzia

Anjel Mari Peñagarikano.

A spaldiko adiskide zaharra nuen. Elkarririk mesedetxoak eskatu izan genizkion, bai pozik egin ere. Nik nola esango nion ba ezetz hari, hain gozo eskatu izan zizkidani bati.

Hiztun egokia, patxarosoa, apa-larabatekoa. Bertsolariaren zenbait esaldi irretre berezia jartzen zion, zain egoten zen. Nik behin (bertso osoa ez dut gogoan), honela kantatu nuen: ... Zegama, Aizkorriren

seme ta Oriaren ama... /Seguran ta Zegaman egunez ikusi ta gaez eram-an, hori askotan entzuten zelako edo, esaldi hori izugarri gustatu zitzaion. Zegamak behar omen zuen holako esaldi xamur goxo bat. Eta paper batean apuntatu egin zuen, eta jaso. Hura poza nerea, jakingo balu! Nere bertso zati bat bere zerrrenda bitxian! Inoiz inoiz gogoratu izan zidan.

Euskal sintaxiaz eta joskeraz sarritan mintzatzen ginen. Nik nere teoriak defenditzeko hamaika aldiz aprobetxatu izan nuen bere izena. «Joxan Orma-

zabalek horrela ziok» esaten nuen, eta inork ez zidan erantzun. «Eta Joxan Ormazabal zein da?» Eskerririk asko Joxan, hire jakinduri eta leialtasunari etekina ateraziot!

Ez Zegaman, ez beste inon, ez dut inor inoiz beretzaz hitz txar bat esaten sumatu, alderantziz nonahi. Eta hori bada zerbait, hori da inork izan dezakeen ohererik handiena, gizabaloak galdu ditugun gizarte honetan. Izan haizelako ez haiz soilik izen.

Sentimentuak idatziz baino hobeto bertsotan agertzen ditudan ustea dut. Horregatixe hain zuzen ere, hileta elizkizunean kantatu nion bertsoa idatziko

dut, etabide batez, Txapi bere herriarrak kantatu ziona, nola batek hala besteak bihotz bihotzez.

Laiñoa zegon Arrano Aitzen Aitzkorri ta Itzubian, laiñoa zegon zu inspiratu izan zintuen mendian, sekula etzan laiñorik izan zure buru oskarbian, begiak itxi ta pentsatzea hobe genuke agian, bihar ipuin bat emeko dala Aierdiko atarian.

Iker Zubeldia, Txapi

Hire begitan apaltasuna ohi genian irakurri, hire hizkiak hitz bihurtuta goxatu hainbat belarri, euskera huen hire bizigai haurtxoak sormen iturri, hire idazkiak izango dituk gure ametsen gozagarri, hiri ipuin batek lokar gaitzala beste batek iratzarri.

Anjel Mari Peñagarikano

H Urteurrenak

II. urteurrena

AMETS AIZPURUA AGIRRETXE

Mendia zenuen maite itsasoa bezainbeste memento ederrak eman dizkiguzu tristorak barne hemendik joan zara baina gure bihotzetan zaude ondo ibili hurrena ikusi arte

Saioa, Lierni, Enki, Aitzol, Izaskun, Iñaki, Itziar, Eneritz eta Joseba, eta Munia. **IBARRALDEKO HIRE LAGUNAK!**

ZUMAIA
2010eko maiatzak 9

II. urteurrena

AMETS AIZPURUA AGIRRETXE

Maitasunak ez du neurrik, zure hutsuneak ez du mugarik.

Etxekoak

ZUMAIA
2010eko maiatzak 9

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Euskararen erabilera bultzatzeko, egun osoko festa

Villabona » Villabonako Euskal Herrian Euskaraz Taldeak antolatua izan da: diana, haur krosa, dantzariak, bertso bazkaria...izan zituzten.

ENERITZ MAIZ

I. Euskaraz Bizi Eguna ospatu zuten atzokoan Villabonan. Villabonako Euskal Herrian Euskaraz Taldeak antolatutako ekimena izan zen. Egunari hasiera dianarekin eman zioten plazan. Bertan izan ziren buruhandi eta erraldoiak ere.

Eguzkiak ere, Euskaraz Bizi Egunean parte hartu nahi izan zuten eta ateri eutsi zion ia ekitaldi guztietan. Dianarekin, Malkar Plazara inguratu ziren haur, guraso, lagun eta aiton-amon guztiak.

Txikienek Haur krosa zuten eta adinaren arabera, parte hartzaileak hiru taldetan banatu zituzten. Hasiera 2 eta 6 urte bitarteko haurrek eman zioten herrian barrena buelta txiki bat emanez. Ondoren, 1, 2 eta 3. mailako haurrak atera ziren lasterka eta hauek itzuli handiagoko egin zuten. Azkenik, ibilbiderik luzeena 4, 5 eta 6. mailakoek egin zuten.

Lehen sailkatuei sariak banatu ostean, parte hartu zuten eta ez zuten haurrek, argazki bat atera zu-

ten I. Euskaraz Bizi Eguna gogoan izan dezaten.

Musika eta dantza plazan

Malkar plaza utzi eta festak jarripena Errebote Plazan izan zuen. Bertan zain zeuden Loatzo Musika eskolako musikariak eta baita, Oinkari Dantza Taldeko dantzariak ere.

Saioa hasi aurretik, Euskal Herrian Euskarazeko bikideek, idatzi bat irakurri zuten. Bertan, herri euskaldun batean bizi eta herritarren % 67a euskalduna izan arren, euskararen erabilera txikia dela azpimarratu zuten. Eta ondorioz, erabilerak duen garrantzia aipatu nahi izan zuten. Ikusle ugari bildu zen musika eta dantza emanaldia ikustera. Ondoren, bertso-bazkari herrikoia izan zuten Kultur Etxean, Hamaika Bertuteko bertsolariak lagundurik. Festari jarraipena, kalejira-poteoa eginez eman zioten eta Onddo Gazte Asanbladaren eskutik bokata afaria izan zuten. Bukaera, Kantuki herriko taldearen kontzertuak eman zion.



Haur Krosa egin zuten Malkar Plazan eta haur ugarik parte hartu zuten. Guztiek argazki bat atera zuten. E. MAIZ



Ondoren, Loatzoko musikariak eta Oinkariko dantzariak izan ziren Errebote plazan. E. MAIZ

Artista gazteak jendaurrean aritzeko aukera

Tolosa » Estilo askotariko musika eta graffitiak izan ziren herenegun eta atzo; sei film labur euskaldun ikusi ahal dira gaur.

ERREDAKZIOA

Kutxa Kultur Zirkuitua Tolosan geratu da asteburu honetan kulturaz beteriko egitarauarekin. Artista gazteei aukera bat eskaintzea eta herritarreilan horren berri ematea izan dira ekimen honen helburu nagusiak.

Hala, graffitigileak ikusteko aukera izan zen herenegun nahiz atzo, eta hip-hop eta reggae musika nola lantzen duten gurean ezagutu ahal izan da, besteak beste. Musikak izan du egitarauan pisu gehien, Nacho Vegas, Rafael Berrio, Desordutan eta Peachy Joke taldeen zuzeneko doinuekin.



GKo Galerikoak eta Dizebi aritu dira graffitiak egiten. E. MAIZ

Gaur izango da Kutxak antolatutako zirkuituaren azken eguna, eta zinemak hartuko du musikaren lekukoa, film laburrekin, hain zuzen ere. 18:00etatik aurrera, Kimuak euskal film laburren progra-

maren baitako sei film ikusteko aukera izango da Topic Txotxongilo-en Nazioarteko Zentroan doan: *Ahate pasa*, *Amona putz*, *Marisa*, *Limoncello*, *Eramos pocos* eta *7:35 de la mañana*.



Guraso eta gaztetxoek reggae musikaz gehiago jakin ahal izan dute. E. MAIZ

Urkolaren omenezkoa «bikain»

Tolosa » Duatloi Herrikoiak 100 parte-hartzaile izan zituen; antolatzaileak «oso gustura» azaldu ziren izandako harrerarekin.

ERREDAKZIOA

Giro polita bizitu zen atzo arratsaldean Tolosako Plaza Berrian. Izan ere, Mahala Tolosaldeko Triatloi Taldeak antolatuta, Javier Urkolaren omenezko IX. Duatloi Herrikoa egin zuten, eta jende ugari gerturatu zen, bai parte hartzerako, bai eta ikuskizunaz gozatzera ere.

Antolatzaileek azaldu zutenaren arabera, 100 parte-hartzaile inguru izan zituen probak. Hauek, banaka, binaka nahiz taldeka egin zuten 19 kilometro luzerako proba. Lehendabizi 2 kilometro Tolosako Alde Zaharrean zehar korrika, gero 15 kilometro bizikletan, eta ondoren beste 2 kilometro korrika.

Lasterketa amaituta, ondorengoek osatu zuten podiuma: emakumezkoetan lehena Isabel Duman izan zen; gizonezkoetan Enrike Piedra izan zen azkarrena; bikoteka Isabel Duman eta Xabier Mujikak osaturikoak irabazi zuten; eta taldeka Mikel Perales, Iker Yarza eta Iñigo Labaien izan ziren bizkorrenak. Irabazleentzat sariak izan ziren, eta baita parte-hartzaile batzuentzat ere, denen artean opariak zozketatu baitzituzten.



Bizikleta hartu eta 15 kilometroko itzulia egin zuten parte-hartzaileak. ENERITZ MAIZ

Antolatzaileak «oso gustura»

Mahala Triatloi Taldeko kideak «oso gustura» azaldu ziren proba bukatu ostean: «Parte-hartzaile kopuru polita izan dugu, guztia oso ondo atera da, beraz, oso pozik gaude».

Beraz, aurtengo emaitza ikusita, datorren urtean ere proba errepikatzeko moduan dira. Bederatzi garrenez egin dute aurtur Urkolaren omenezko Duatloia. 1997. urtean hasi ziren antolatzen, eta 2002. urtera arte egin zuten etenik gabe. Pasa den urtera arte, ordea, etenaldia egon baitzen iaz, eta orduan hartu zuen triatloi taldeak berriro antolatzeko ardura.



Alde Zaharrean zehar 4 kilometro egin zituzten korrika. ENERITZ MAIZ

Euriak eragin positiboa izan du larunbateroko azokan

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso animatua izan zen. Euriak errespetatu gintuen, eta asko izan ziren kalera ateratzeko desiatzen zeudenak. Postuetan erosle asko ikusi genituen, eta kaleetan ere oso giro polita.

Eskaintza aldetik euriaren eragina positiboa izaten ari dela esan genezake. Produktu asko izan zen mahaian, bai barazkien postuetan, baita perretxikoenean ere, eta hauetan ere berritasunak. Ziza asko, onddo dezente eta aurtengo lehenengo mortxelak. Barazkien artean baba eta ilarra nagusi, eta hauekin lekak eta tomateak pixkanaka hasten ari direlarik.

Datorren asterako Txemari Estebanen bisita espero dugu Tolosako Azokak KM0 ekimenaren inguruan. Botarriko sukaldaria azokako produktuekin entsalada pintxoren bat prestatzeko asmoz etorriko da.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merka	Gares.
Landareak		
Geraneoa	2,00	-
Alegria	1,50	2,00
Menta	1,50	6,00
Salbia	1,00	1,20
Berbena	3,00	-
Zainzuria	2,80	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Onddoak	29,00	30,00
Zizak	10,00	38,00

Fruta		
Kiwia	3,50	-
Errezil sagarra	2,00	4,00
Urra	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak (sorta)		
Tipula berria	1,50	-
Babarrun zuria	8,00	-
Tomatea	3,25	4,00
Ilarrak	10,00	12,00
Babak	3,00	-
Porruak	1,00	4,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Bainak	3,00	4,00
Patata berria	1,50	2,00
Letxua	0,50	0,80
Espinakak	2,00	-

Besteak		
Arraultzak	2,50	3,00
Artisau ogia	2,80	3,70
Irasagarra	3,00	6,00
Gasza berria	17,00	-

Produktu ekologikoak		
Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Letxua	1,00	-
Aza	2,50	3,00
Mermelada	3,00	3,60
Erremolatxa	1,60	-



Garagardoaz gozatzeko azken aukera

IBARRA » Ostegunean zabaldu zituen atekak berazala Ibarako Garagardo azokak. Bi karpa erraldoietatik jende ugari pasa da eta aurtengo berrikuntzen artean, atzo, I. Mus Txapelketa azkarra jokatu zen. Bertan, 24 bikotek parte hartu zuten. Hala ere, gaurkoa izango da hogeigaragar-

do eta bost kalimotxo ezberdin probatzeko azken aukera. Jatekoen artean, ukondoa, saltxitxak, Ibarako piperrak, haragi egosia eta gasza, irasagar eta euskal pastela egongo dira. Garagardo Festak, 18:00etan zabaldu eta gauerdian itxiko ditu atekak. I. TERRADILLOS



18°
10°

GOIZA OSKARBI
ARRATS. EURIA
BEROENA 18°
HOTZENA 10°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Etorkizun handiko mago gaztea

GAZTELU Jon Magic lurrako mago gaztearen magia gozatzeko aukera izan zuten atzo Gaztelun. Era askotako magiak egin zituen: usoarekin, liburuarekin, pape- rarekin, kartekin... Herriko gaztetxoek arreta handiz ja-

rraitu zuten ikuskitzuna. Beraiek ere emanaldian zehar mago izateko nahia behin baino gehiagotan azaldu zuten eta baita parte hartu ere. Bukatzeko guztiak me- rienda izan zuten Erroizpe Azpi Elkartearen. I. TERRADILLOS

A Agurrak



Urte askoan!

Irati Irazusta Jauregi (Anoeta).
Gaur 9 urte eta lehen Jaunartze eguna. Ondo pasa gurasoen partetik.

Zorionak Haitz! Bihar urtebete!

Udaberrian loreak puri-purian, zure irria guretzat poz iturria eta alaitasun ikaragarria. Muxu goxoak pottottino!! Aitaxo eta amatxo.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

A Agenda

Kultura

■ **Tolosa.** Kutxa Kultur Zirkuitua- ren barneko Expo Kultur 10:00etatik 20:00etara Kultur Etxean. Arratsaldean Kimuak la- burmetriaren bilduma Topic-en 18:00etan.

Zinema

■ **Tolosa.** *Los niños de Timpelbach* haurrentzako filma Leidor aretoan 17:00etan.

Erakusketa

■ **Tolosa.** *Carnet de voyage. Vuelta de Chile* erakusketa GKO Galleryn ekainaren 13a arte.

Ibilaldiak

■ **Tolosa.** *Bederatzi zubi berdintasun- naren alde* izeneko ibilaldia plaza Berritik 11:00etan abiatuta Udal Txistulari Bandarekin batera Usa- bal kiroldegiraino. Ondoren plaza Berrian manifestua irakurriko dute eta Naiara Arreseigor eta Mattin de la Sotilla bertsolariak, Udaberri- dantzari taldea eta Isidro Larraña- ga musika eskolako ikasleen emana- ldiak izango dira.
■ **Zizurkil.** Pello Mari Otañoren ibi- laldia 10:00etan Plazatik hasita. Bi orduko ibilbidea.
■ **Berastegi.** XVIII. Mendi Ibilaldia Berastegiko larre eta basoetatik

Leitzarano ezagutzeko. 30 kilome- troko mendi-ibilaldia.

Aisialdia

■ **Ibarra.** Garagardo Azokaren az- ken eguna, 18:00etatik aurrera za- balik. Hogeigaragardo ezberdin eta bost kalimotxo berezi dasta- tzeako aukera herriko plazan.
■ **Tolosa.** Hilaren 15ean izango den Txapin Festako bazkarirako txartelak herriko Orbela, Meskal, Raku eta Denak tabernetan erosi daitezke 12 euroren truke.

Deialdiak

■ **Albiztur.** Albiztur eta Beizamako

udalek idazkari-interbentore pla- zaren oposaketa deitu dute. Oina- rriak www.albiztur.com eta aprila- ren 30eko Gipuzkoako boletin ofi- zialean. Eskaearak bi udaletxeetan aurkez daitezke maiatzaren 25a baino lehen.

■ **Villabona.** Behar Zana K.E.-k bere urtemugaren festa ospatuko du datorren ekainaren Sean eta 6an. Elkartearen 64. urtemuga ospatzeko antolatutako afarian parte hartu nahi duen bazkidea, egoi- tzan jarrita dagoen zerrendan punta daiteke, ekainaren 3ra arte. Bazkideak direnek izena eman de- zakete jada; bazkideak ez direnek,

berriz, hilaren 24tik aurrera aukera izango dute, beti lekurik balego. Era berean, afaldu ostean egingo den danborradan parte hartu nahi duena apuntatu daiteke.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernika- ko arbola, 3. 943 65 10 45.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Ara- lar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

SARIDUNAK

Gaur Ibarra ospatuko den VII. Garagardo Festan afariaren sariduna Aritz Larreta Bereziartua (Amezketan)

TXOKOA hitza

konzentrazioa
Tolosako udalean
ustelkeriarik ez
14. eta 15. urteko
14. 3000
14. 3000

hitzaaldia
1 urteko garonak
8 urteko
lotsagabe keria
14. eta 15. urteko
14. 3000
14. 3000

Tolosako Esker Abertzalea